

Bilbao, 2019.eko apirilaren 11a

## **DATOZAN HAUTESKUNDEAK DIRALA-ETA**

Adiskideok:

Dakizuenez, datozan asteetan bi bider joan beharko dogu botoa emotera; han zuzen be:

**Apirilaren 28an, Diputatuen Kongresuko eta Senaduko kideak hautatzeko.**

**Maiatzaren 26an, Udaletako, Batzar Nagusietako eta Europako parlamentuko kideak hautatzeko.**

Egoera politikoaren inguruko eretxia jasoten daben galdeketa askok eta askok erakusten dabenez, jentearen hoztasuna, desilusinoa, axolagabetasuna... erakusten dau. Klase politikoak, askotariko eremuetan erantzukizunak dabezan personek, orokorrean, balorazino eskasa jasoten dabe eta bakar batzuk baino ez dira gitxieneko onespena lortzen dabenak.

Halanda be, Eleizaren Doktrina Sozialean behin eta barriz azpimarratzen danez eta Gaudium et Spes agiriak jasoten dauanez:

«Bat dator erabat giza izaerarekin, herritar guztiei, gero eta hobeki eta inolako bereizketarik gabe, libreki eta aktiboki komunitate politikoaren legeko oinarriak ezartzean, Estatuaren gobernuan, erakunde ezberdinen arlo eta mugak zehaztean eta gobernatzaileak hautatzean benetako ahalmena emango dien egitura politiko-juridikoak ezartzea» (GS,75)

Gizon-emakumearen nagusitasuna, duintasuna eta guztion onaren defentsa lehentasuntzat hartu behar daben egiturak eta personak. Horixe gogoratzen deusku Frantzisko aita santuak Evangelii Gaudium aholku-hitzean.

«Garbi izan dezagun: karitatea «ez da soilik mikro-erlazioen oinarria, esaterako, adiskide, familia eta talde txikien artekoena, baita makro-erlazioena ere, esaterako, harreman sozial, ekonomiko eta politikoena». Jaunari eskatzen diot eman diezazkigula gizartearen egiaz, herriaz, behartsuen bizitzaz kezkatuko diren politikariak!» (EG, 205)

Karidade eta Zuzentasunerako Ordezkaritzaren barruan dagoan Eleizaren Doktrina Sozialerako Batzordetik zuon eskura jarten dogu hainbat agiri, esteka honen bitartez: <http://www.bizkeliza.org/comisiondsi/>

Dei egiten deutsuegu, beraz, irakurri daizuezan, bakarka hausnartu eta taldean alkarrizketan jardun daizuen:

- **Politika ona bakearen esanetara dago.** Frantzisko Aita Santuaren mezua Bakearen aldeko Munduko 52. Egunerako – 2019ko urtarrilak 1.
- **Gizarte zuzenagoaren alde – Proposamen politikoak 2019 – 2019ko hauteskundeak dirala-eta. Caritas** – Agiri bi dira; luzeagoan, askotariko proposamenak jasoten dira eta laburragoan, dalako proposamen horreek laburtuta dagoz (**8 proposamen politiko**).
- **“Hausnarketa egunetarako”** – Laikoentzako Gasteizko Zerbitzutik prestatutako lagungarriak dira; EDSa oinarritzat hartuta, hainbat hausnarketa eta ekarpen jasoten dau eta baita galdeketa be bakarka eta taldean lantzeko. Frantzisko aita santuak bakearen aldeko aurtengo jardunaldirako kaleratutako mezua hartzen dau oinarritzat.
- **“Demokrazia barritu. 2019ko hauteskunde-prozesuei buruzko hausnarketa”.** HOAC mobimentuko Batzorde Iraunkorra.
- **Sareen sarearen (hirugarren sektorea Euskadin) 19 proposamen 2019ko foru eta udal hauteskundeetarako.**

Baliagarri izatea nahiko geunke.

Zeun esanetara gagoz, gainera, egokitzen jotzen badozue, hausnarketak, gizarte gelak... sustatzeko edo laguntzeko.

Eskerrik Asko. Agur bat

Bilbao, 11 de abril 2019

## **ANTE LAS PRÓXIMAS CITAS ELECTORALES**

Queridos amigos y amigas:

Como sabéis, en las próximas fechas estamos convocados a varias citas electorales. En concreto:

**28 de abril – Elecciones al Congreso de los Diputados y al Senado**

**26 de mayo – Elecciones Municipales, a Juntas Generales y al Parlamento Europeo**

Si nos acercamos a muchas de las encuestas que recaban la opinión sobre la realidad política, en la mayoría de las ocasiones, las repuestas señalan desafección, desencanto, indiferencia. La valoración de la clase política, de muchas de las personas que desempeñan responsabilidades en sus diferentes ámbitos, es bastante negativa, siendo pocos los que aprueban.

Sin embargo, como señala insistentemente la Doctrina Social de la Iglesia y recoge Gaudium et Spes:

“Es perfectamente conforme con la naturaleza humana que se constituyan estructuras político-jurídicas que ofrezcan a todos los ciudadanos, sin discriminación alguna y con perfección creciente, posibilidades efectivas de tomar parte libre y activamente en la fijación de los fundamentos jurídicos de la comunidad política, en el gobierno de la cosa pública, en la determinación de los campos de acción y de los límites de las diferentes instituciones y en la elección de los gobernantes» GS nº75

Estructuras y personas que deben tener como prioridad la centralidad de la persona, su dignidad, la defensa del bien común. Así lo recuerda el papa Francisco en Evangelii Gaudium:

“Tenemos que convencernos de que la caridad «no es sólo el principio de las micro-relaciones, como en las amistades, la familia, el pequeño grupo, sino también de las macro-relaciones, como las relaciones sociales, económicas y políticas. ¡Ruego al Señor que nos regale más políticos a quienes les duela de verdad la sociedad, el pueblo, la vida de los pobres!» E.G. nº205.

Desde la Comisión de Doctrina Social de la Iglesia - Delegación de Caridad y Justicia ponemos a vuestra disposición los siguientes documentos, a través del siguiente enlace: <http://www.bizkeliza.org/comisiondsi/>

Os animamos a la lectura, la reflexión personal y el diálogo en grupo:

- ***La buena política está al servicio de la paz.*** Mensaje del Papa Francisco ante la 52 Jornada Mundial por la Paz – 1 de enero 2019
- ***Para una sociedad más justa-Propuestas Políticas 2019 – Ante las próximas elecciones legislativas 2019. Cáritas*** – Se trata de dos documentos. Uno más amplio donde se van señalando diferentes propuestas y otro más sencillo donde se recogen dichas propuestas más resumidas (***8 Propuestas políticas***)
- ***Para tus Jornadas de Reflexión***”- Es un material elaborado desde el Servicio del Laicado de Vitoria, que recoge varias reflexiones y aportaciones desde la DSI, con un cuestionario para el trabajo personal y en grupo. Toma como base el Mensaje del papa Francisco para la Jornada mundial por la paz de este año 2019.
- ***“Renovar la Democracia. Reflexión sobre los procesos electorales 2019”.*** Comisión Permanente HOAC.
- ***19 propuestas de Sareen Sarea (Tercer Sector en Euskadi) para las elecciones forales y municipales 2019***

Esperamos que puedan ser de utilidad.

Estamos también a vuestra disposición para acompañar o dinamizar, si así lo veis oportuno, un espacio de reflexión, un aula - social, ...

Eskerrik Asko. Un cordial saludo